

BERRIGARA

Oporren ostean,
berriz ere lanera

202. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, irailak 8



Ortuko altxorrak

Barazki, lora, fruitu eta gazten lehiaketa



**LARRAÑAGA**
A U T O E S K O L A

ADI ORAIN!! IRAILEAN
% 10eko DESKONTUA
ZURE INSKRIPZIOAN
GAZTE TXARTELA
BADAUKAZU

Artekale, 22 Tfnoa: 76 16 63 BERGARA



Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK



AROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonoa eta Faxe: 76 54 91

**ZATOZ GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

BERRITALDE JAUREGIA
48570 Bergara
Telefonoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
BERRITUN Elkarteak.
Masterrreka, 13 Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:
Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkorobereibar
Ane Larrañaga

Maketazioa:
Eneko Azkarate
Publizitatea:
Ane Azkarate
Harpidetzak:
Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:
Espan Plazaola
Miguel Laskurain
Ane Labaien

Erredakzio kontseilua:
Gorka Elorza
Miguel Angel Elkorobereibar
Ane Labaien

Komikiak:
Gintor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Ane Ugalde

Harriak:
Ane Azkarate
Harriak:
Txantxangorri taldea

Tirada:
4000 ale.
Reprimategia:
Gintor Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:
BERRIGARA
Lege gordailua:
SS 50/91

ISSN:
1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Legebiltzaren Kultura sailaren laguntza jaso du


Z E B E R R I D A ?

JABIER LAZPIUR Bedelkarreko kidea

- Nolatan herriko odoloste dastaketa biharko ferian?

- Bedelkarren barruan gauden 8 harakinok herria nahiko motel dagoela ikusi genuen eta orain lurreko gauzak ateratzeko garai ona denez eta feria aprobetxatuz nobedaderen bat antolatzeari pentsatu genuen. Erramu Zapatua bizitu zen moduan San Martingo feriarri ere beste bultzadaxo bat eman nahi diogu. Beti hitzegiten da Beasaingo odolosteei buruz baina Bergarako ere kalitate haundikoa da. Ezagutzera eman nahi dugu eta harakin bakoitzak 10 bat kilo jarriko ditu jendeak dastatzeko eta salmentarako aukera ere izango da.

- Santo Tomas ferie-



tan moduan txerri zozketa ere izango da...

- Bai, 150 Kg.ko txerri bat izango da eta irabazleak txerria eraman nahi ez badu dirua (33.000 pta.) jasoko du. Jasotzen den dirua herriko kultur talderen bati emango zaio. Bestalde gure asmoa urte guztian honelako ekitaldiekin jarraitu eta herriaren alde hainbat arlotan lan egitea litzateke.

"San Martingo feria bizitu nahi dugu odoloste dastaketa eta txerri zozketarekin"

I T U R R I O N E T I K

La Caixa bulegoa irekiko du Ayastuy jantxidendaren lokalean

La Caixa banketxe katalandarrak bulego bat irekiko du Ayastuy jantxidendak Barrenkalen zuen lokalean. La Caixako ordezkariak eta lokalaren jabeak uztailen akordio batetara iritsi ziren eta banketxea jartzeko lanak berehala hasiko dira. Lokalak 2 solairu ditu eta, horrez gain, badirudi La Caixa beste bulego bat irekiko duela Arrasaten. Ayastuy jantxidenda orain lau bat urte itxi zen 60 bat urtetan zehar zabalik egon ondoren. Lokala itxi zenetik hainbat zurrumuru entzun ahal izan dira eta hainbat banketxeren izenak komentatu dira. Azkenean katalandarrak izango dira inkilino berriak.

E S A N D U T E

"Lizardi sariak ilusio haundia egin dit, nik hamaika-hamabi urte nituenetik urtero ikusle gisa izan dudana zita bat da eta uste dut bertso munduko pertsonaia inportante askoren urteroko topalekua dela.

(...) Ez dakit gazteen artean gizonezko eta emakumezkoak parez-pare gabiltzan. Nik ikusten dudana da egoera normalizatu dela. Gaur egun gazteok gauza normalizat jotzen dugu emakumeon partaidetza bertsolaritzan.

Kopurutan erortzea ez nuke nahi, baina bai, nik ikusten dut saiotan emakume batzuk ari direla erantzuten eta berriak ere badatozela. Eta noski, gizonezkoek hor jarraitzen dutela eta berriak ere badatozela. Bestalde, ideia eta bertsokera ezberdinak daude. Baina ez dut uste desberdintasun hori gazte eta nagusien artean bereizten denik. Orokorrean, pertsona ezberdinen pertsonalitatean oinarritzen dela uste dut".

**AINHOA
AGIRREAZALDEGI
Bertsolaria
EGUNKARIA**



CIRCULO DE AMIGOS
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 22.30.
Igandea: 19.30, 22.15.



POWER RANGERS
Larunbata: 17.00, 19.30.
Igandea: 17.00.
Astelehena: 19.30.



Zinea

▼▼ **Maeve Binchy** idazlearen *best-sellerean* oinarrituta, **Pat O'Connorek** zuzendu eta **Chris O'Donellek** protagonizatutako filma. *Benny* (**Minnie Driver**) eta bere bi lagunek (**Geraldine O'Rowe** eta **Saffron Burrows**) beren herri txikia utzi eta Dublinera ikastera joango dira. Han bere lehen amodio eta haserreei aurre egin beharko diete...

▼▼ Mundu osoaren etorkizuna jokoan dagoela, *Power Rangers* eroiek **Ivan Ooze** beren etsai arriskutsuenaren kontra borrokatu beharko dute. Gudari eder baten laguntzaz, Ninjettien artea ikasiko dute eta botere berri horiei esker borrokarako gertu egongo dira. Marrazki bizidunetan oinarritutako filme honetan efektu bereziak izango dira nagusi.

▼▼ **Xake Astearen** barruan astelehenean 6etan mahai-ingurua Kultur Etxean, asteartean 5etan aldibereko jokaldiak Plazan, asteazkenean 6etan xake azkarreko maratona Zabalotegin, ostegunean 11etan eskolarteko txapelketa eta ostiralean 6etan hitzaldia Zabalotegin eta 7etan taldekako finala. Asteburuan, III. Bergara Hiria txapelketa.

Deiak

▼ **EAJ-PNV.** Bergarako EAJ-PNVk dei egiten die alderdikide eta lagunei datorren irailaren 17an Gasteizko Salburuako zelaietan ospatuko den Alderdi Egunean parte hartzeko. Autobusa goizeko 9etan aterako da Beheko Estazio-tik. Interesatuak Batzokiko tabernan jaso ahal izango dituzte txartelak.

▼ **Argazki erakusketa.** Txema Muñoz eta Jose Martínez Romanez Bartzelonan ateratako publikitate argazkiak Nahikarin ikusgai.

▼ **Eskubaloia.** 1980-81ean jaio eta eskubaloian jokatu nahi duten mutilei dei egiten zaie asteartean, hilak 12, arratsaldeko 6etan Kiroldegian egingo den entrenamenduan parte hartzeko.

Ogia

▼ **Igandea 10:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 8:** Mozos.
- ▼ **Larunbata 9:** Puy.
- ▼ **Igandea 10:** Puy.
- ▼ **Astelehena 11:** Estella.
- ▼ **Asteartea 12:** Mozos.
- ▼ **Asteazkena 13:** Puy.
- ▼ **Osteguna 14:** Mozos.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

ANDONI ARANZABAL LAZCANO

FINKA ADMINISTRATZAILEA
Barrenkale, 7 1. Eskuma BERGARA
☎ 76 03 46

Ortuko altxorrak plazara

Barazki, lora, fruitu eta gazten lehiaketa zapatuan

Bihar larunbata, goizeko 9 terdietatik aurrera, ohizko barazki, fruitu, lora eta gazten lehiaketa izango da San Martin Agirre plazan. Barazki lehiaketan, partaideek (7 oraingoz) norberak produzituko etxeko barazkiak aurkeztu beharko dituzte eta fruitu lehiaketan (3 partaide), berriz, norberak lortutako fruituak (moeta bakoitzeko gutxienez bi kilo). Gazten lehiaketan 9 partaide izango dira eta beren artaldeko esne gordinaz egindako gaztak (800 gr.koak gutxienez) aurkeztuko dira, gutxienez bi hilabete-tan ondu direnak, keatuak edo keatu gabeak. Aipatutako 3 kategorietan ondoko sariak izango dira: 40.000 pezeta eta Udal-letzeko trofeoa irabazleentzat eta 25.000 eta 15.000 pezetako sariak bigarren eta hirugarren postuetan sailkatzen direnentzat. Aipatutako 3 sarrituen artean herriko partaiderik ez balego, herriko onenak 10.000 pezetako saria jasoko luke.

Bestalde, lora lehiaketan bi kategoria bereiztuko dira: lora moztuak eta etxeko loreak. Lehen ka-



Lehiaketara inguruko baserritarrak aurkeztuko dira.

tegorian norberak lortutako loreak aurkeztu beharko dira (espezialitate bakoitzeko dozena bat gutxienez). Etxeko loretan, berriz, etxea apaintzeko erabiltzen diren lorapote-

ak (6 lorapote gehienez partaide bakoitzeko). Honako sari hauek banatuko dira: 20.000, 15.000 eta 10.000 pezeta lehen hiru-erentzat eta 5.000 pezeta herriko onenarentzat. Le-

Bedelkarreko harakinek odolkien dastaketa antolatu dute

hiaketa ezberdinetako epaimahaiak 10etan pasatuko dira erakutsitako produktu ezberdinak aztertzeke asmoz eta epaimahaiaren erabakia jaso ondoren, 10 terdiak aldera salmentari hasiera emango zaio.

Odolkien dastaketa eta txerri zozketa

Era berean, Bedelkar elkarteko harakinek antolatuta, herriko odolkien dastaketa izango da. Bertan, Igarza, Sebastian Imaz, Lazpiur (Altzeta), Jose Luis Leturia, Juan Mari Leturia, Rezola, Urceley eta Zurutuza harakinek hartuko dute parte. Bedelkarrek txerri bat zozketatuko du beste herri batzuetako ferixetan egiten den antzera. Jasotako dirua herriko kultur elkarteren baten proiektu batetarako bideratuko du Bedelkarrek.

Dirua jasotzeko interesa duten kultur taldeek beren proiektuen berri eman beharko diote Bedelkarri.

Bestalde, Urretxuko Txalapartari eta Albokari taldeak feria alaituko du goiz guztian zehar.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Eguzkialde txaleta

Zuzendari jauna: Berrigararen 200. alean "Eguzkialde" txaleta botatzea dela eta, ez duela aparteko merito artistikorik esaten da. Dakigunez ez da batere erreza "arte" zer den definitzea baina, atrebentzia bada ere, ausartuko nintzateke esatera artista konsagratu baten lanak bere balorea duela eta garai baten garapen urbanistiko edota bizimodua isladatzekak beste horrenbeste.

Dudarik gabe, aipatutako etxeak (nahiz eta estilo propioa ez izan) bi elementu hauek zituen: alde batetik, Luis Astiazaran arkitektoa izan zen egilea, eta bere lanik garrantzitsuena Bilbon aurkitu arren, Bergaran bertan beste pare bat eraikuntza ditu antzular honek, Oregineko etxea eta aintzinako "Banco Hispano Americano", egungo Bidekurutzeta kaleko "Central Hispano" dena, hain zuzen ere. Bere lana ez da izan batere makala orain dela 8-10 urte, bere omenez, S. Telmo museoan erakusketa bat egin bait zen.

Bestaldetik esan, etxe hau beste batzuekin batera garai baten lekuko dugula, eta zoritxarrez edo zorionez, batek daki! gaur egun Frontoitik Espoloiraino ez zaigu herri honen iragan hurbileko mustrarik geratzen, Estaziñua salbu.

Etxearen estiloari buruz, nahiz eta eklektikoa izan, beste zenbait gauza aipa litezke baina hau ez da momenturik aproposena.

Guzti honekin esan nahi dudana zera da: ziur nago Eguzkialde izeneko etxeak, egingo diren etxebizitzak baino askoz merito artistiko gehiago izango zuela, bergarar guztien kalterako.

Karta hau zuen astekarian aterako duzuelakoan agurtzen zaituztet.

Adeitasunez.

**BERGARAR BAT
NAN: 15.340.782**

Alternatiba Demokratikoa

Hego Euskal Herriko Estatu espainiarrarekin daukan gatazka politikoan irtenbidea emateko proposamena eginduko ETAK. Proposamen hauen funtsa, hurrengo puntuen arabera, hartu beharreko akordio politikoan datza.

Hego Euskal Herrian egiazko demokrazia eraiki dadin, gure Autodeterminazio eskubidea eta gure lurraldetasuna errekonozituko dituzte Estatu espainiarrak eta, ondorioz, euskal herritarrok erabakitzen duguna errespetatzea konprometituko da.

Euskal gizarte osoa inplikatu eta zuzeneko partehartzearen bitartez, nolako Euskal Herria nahi dugun erabakiko dugu. Eztabaida eta erabakitze prozesu hau euskal herritarroei soilik dagokigu eta, beraz, euskal gizarteak izango da hartu beharreko erabakien subjektu bakarra. Prozesua benetan demokratikoa izan dadin, preso, errefuxiatu, eta deportatuen eskuhartzea ahalbideratuko duen amnistia emango da. Aipatutako edukinak akordio bidez lortu eta bermatzen direnean bere iharduera armatua geldituko duela adierazten du ETAK

HERRI BATASUNA

Tiira biraka



JAIOTAKOAK

Jasmine Forjan Fernandez
Uztailak 14
Beñat Lizarralde Solana
Uztailak 19
Irati Lenisoro Hernandez
Abuztuak 6
Nerea Etxaniz Zubizarreta
Abuztuak 6
Rafael Marcos Morales De Moura
Abuztuak 10
Aitor Kortabarría Iparragirre
Abuztuak 15
Marta Gomez Rodriguez
Abuztuak 17
Leire Aperribai Castillejo
Abuztuak 20
Ainhoa Mardaras Maiztegi
Abuztuak 20
Mikel Manso Fraile
Abuztuak 25
Mireia Santamaria Sampietro
Irailak 3
Julen Jorge Gabilondo
Irailak 4

HILDAKOAK

Amparo Bañeza Seco
Uztailak 25, 83 urte
Maria Jauregi Lizarralde
Uztailak 28, 84 urte
Ester Arietealeanizbeaskoa Bengoa
Uztailak 29
Francisca Garitano Aldekoa
Uztailak 31, 86 urte
Maria Pilar Arietealeanizbeaskoa
Abuztuak 3, 63 urte
Narcisa Berraondo Oregi
Abuztuak 9
Anastasio Sanchez Dominguez
Abuztuak 9, 85 urte
Joaquina Ormazabal Azurmendi
Abuztuak 10, 96 urte
Fermin Alberdi Arabaolaza
Abuztuak 19, 69 urte
Juana Martinez Lejarriturri
Abuztuak 25, 91 urte
Julia Larrañaga Albistegi
Abuztuak 26, 69 urte
Felipe Garaikoetxea Gabilondo
Abuztuak 31, 64 urte
Maria Angela Gonzalez Beitia
Irailak 3, 64 urte

Gorlako kantina berriaren obrak abuztuan amaitu dira

Gorlako kantina berria egiteko lanak amaitu ziren abuztuan. Kantina berriak 15 milioi pezeta inguruko kostua izan du eta Diputazioa (13 milioi) eta Bergarako Udalaren (milioi terdi pezeta) artean ordaindu da. Udalak hil honetan bertan aterako du kantina adjudikatzeke baldintza plegua eta urte amaierarako adjudikazioa egiteko asmoa dago.

Kantina berriaren arduradunei kantina behar bezala hornitzeko epea emango zaie eta, beraz, inaugurazioa otsail aldera izan daiteke, oraindik ere fetxarrik zehaztu ez den arren. Era berean, inguru horretan hainbat lan egitea falta da: arbolak landatu, bankuak ipini eta beste hainbat txukunketa lan. Udalak oraindik ez du erabaki inguruari zein izen jarriko dioten. Iturri-berri izena jarriko ziotela entzun ahal izan da baina



Kantina berria datorren urtera arte ez da zabalduko.

Udaletik jakinarazi digutenez, momentuz ez da gai horren inguruko behin betiko erabakirik hartu. Bestalde, Antzuolako Udalarekin ere akordio batera heldu beharko da Udala kantinarekin ur horniduraren inguruan. Dirudienez, kantina zaharraren ur hornidura Antzuolako lurraldeetatik egiten zen eta Antzuola-

ko Udalak egoera hori formaltzeko asmoa du.


Kantina zaharra bota

Kantina berria zabaldu orduko kantina zaharra bota egingo da eta Udalak oraindik ez du erabaki lehengo jabeek preferentziarik izango duten kantina berria adjudikatzeke orduan.



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio, 3
☎ 76 22 93

Ibargarai, 2
☎ 76 53 22



**ESKORIATZako
MAGISTERIO ESKOLAK**

aukera hauek eskaintzen dizkizu:

- Magisteritzako titulu berriak
- HAUR HEZKUNTZA
- INGELESA
- Esparru ezberdinetan lana egin ahal izateko formakuntza egokia: eskolan, euskalduntze munduan, iharduera soziokulturaletan...

Informazioa:
IRAKASLE ESKOLA
ESKORIATZA (Gipuzkoa) ☎ 71 41 57

**1995-96 ikasturterako
matrikulazio-epea
zabalik**

◆ Erasoak

Martitzen goizaldean ezezagun batzuk su eman zioten Telefonikak San Lorentzoko Industrialdean duen garajeari. Horren ondorioz furgoneta bat kiskaldu zen eta beste batek kaltete dexente izan zituen. Bestalde, zapatu gauean Mariaren Lagundia (sarrerako kristalak hautsi zituzten) eta Epaitegiaren kontrako erasoak izan ziren.

◆ Alargunen irteera

Alargunen Elkartek irailaren 14an Santander aldera joateko irteera iragarri du. Interesatuak Euskadiko Kutxan 2.800 pta.ko ingresoa egin beharko dute.

◆ Xipizaro ludoteka

Xipizaro ludotekak irailaren 18an emango dio hasiera aurtengo ikasturteari. Izen-ematea eta argibideak ludotekan (Seminarioan) irailaren 11tik aurrera, 11etatik ordubatera.

◆ Musika Eskola

Astelenetik aurrera musika hizkuntza, pianoa, akordeoia, klarineta, tronboia, bonbardino eta tubako klaseak hasiko dira.

◆ Aranzadi Ikastola

Haur hezkuntza eta 7. eta 8. mailako klaseak irailaren 11n goizez eta 18aren aurretik goiz eta arratsaldez hasiko dira. Batxilergo eta UBIkoak, irailaren 25ean (aurkezpena 22an).

◆ Udal Euskaltegia

Matrikula epea irailaren 15era arte izango da zabalik, 8.30etatik 12.30etara eta 14.30etatik 19.00etara. Argibideak: 76 44 53.



Boni Laskurain pasealekutik pasatzen direnek ura edateko aukera izango dute orain.

Ipintzako iturri berriak abuztutik ematen du ura

Iturri zaharrera joateko biderik ez da izango

Abuztu honetan jarri da martxan Ipintzako iturri berria. Gogoratuko denez, iturri zaharrera joateko bidea itxi egin zen institutu berria eraiki zenean eta haserrea sortarazi zuen inguruko bizilagunen artean uda aurretik. Aurreikusita zegoen moduan, Miguel Altuna eta Ipintza institutuen aurrean berria egin da. Udaletik adierazi digutenez, *"iturri zaharraren urak ez zituen edateko garantia guztiak eta orain, berriz, herrian jarri diren iturri guztietan ura edan daiteke inolako kezkarik gabe"*.

Besteak beste ondoko tokietan jarri dira iturriak azken urteetan: Fraiskozurin, Jubilatuetan, Simon Arrietan, Poligonoan, Bolun, Zabalotegin edota Kiroldegian.

Lehendik zeuden iturriei dago kienez esan behar da ura ez dela edangarria iturri guztietan. Hala ere Udaletik adierazten dutenez, *"iturri dexente ditugu bai herrian eta bai auzo ezberdinetan ere eta alde berritatik behintzat ez dago inolako arazorik"*. Esan behar da, Goiko Plazako iturria, azken urtetan agortuta izan dena, berriz ere martxan jarri duela Udalak orain dela gutxi.

Bestalde, Udalak beste iturri bat jarriko du Galarreta zapatadenda zaharra zegoen lekuan (Komenio kalearen hasieran) egingo den Justo Garate parkean. Bertan, iturria jartzeaz gain, komun publikoak ere egingo dira eta zuhaitz eta eserlekuak jarriko dituzte lorategi eta guztiz.

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

EXLUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA




ARANZADI IKASTOLA

San Martin plaza, 4 BERGARA
 Telefonoak: 76 26 76 - 76 56 76 Faxa: 76 55 95

1995-96 BATXILERGOA

BBB eta UBlrako MATRIKULA ZABALIK DA

EPEA: Irailaren 11ra arte
 TOKIA: Ikastolako Idazkaritza, San Martin plazan
 ORDUTEGIA:
 Goizez: 8.30etatik 13.00etara
 Arratsaldez: 15.00etatik 18.00etara




TRIKITI ESKOLA



SOINUA

eta

PANDEROA



- Kurtso hasiera: 1995eko irailaren 27a
- Kurtso amaiera: 1996ko ekainaren 15a
- Egunak: Asteazken eta larunbatetan
- Kuota: 1.800 pzta. panderoa / 2.500 pzta. soinua
- Matrikula epea: 1995eko irailaren 19a
- Izen ematea: JARDUN. Masterreka 13. ☎ 76 08 19

Kanpotar askok bisitatu du herria abuztuan zehar

Abuztu lasai samarra izan dugu aurten. **Alfonso Alonso** udaltzain buruak adierazi digun bezala, "abuztu guztiak izaten dira lasaiak, jende gutxiago ibiltzen baita, eta aurtengoa ere bestetako bezalakoa izan da". Hala ere, ezin esan ezer gertatu ez denik. Abuztuan, oporrak direla eta, urteko beste sasoietan baino jende gutxiago izaten da herrian, baina gero eta gehiago dira herrian geratzen direnak: "jendea ibili da, batez ere goiz eta iluntze partean". Lan egin behar izan dutelako edota oporrak herrian igarotzea erabaki dutelako, herritar ugari ibili da Bergaran abuztuan zehar.

Turistak Bergaran

Bergara bisitatzera etorri diren kanpotarrak ere dextente izan dira. **Turismo bulegoak** egunero zabaldu ditu atek eta ia egunero antolatuta dira bisita gidatuak. "Balantze zehatza egiteko goiz bada ere, esan dezakegu 1.300 kontsulta izan direla Turismo bulegoan, beraz, pozik

gaude kanpotar ugari etorri baita. *Katalanak izan dira gebien burbildu direnak eta baita madrildarrak eta Euskal Herrikoak ere*" esan digu **Xabier Aranburu** udal museologoak.

Eguzkialde txaletari agur


Abuztuan oporretara kanpora joan diren herritarrek ustekabe ederra hartuko zuten oporretatik bueltan herrira itzultzean **Eguzkialde** txaleta bo-

tata eta lursaila hutsik ikustean. Abuztu erdialdean bota zuten, Fraisko-zuri eta Irizar ibilbideek bat egiten duten ezkinan zegoen txaleta. Laster hasiko dira etxe berriak eraikitzen.

Euli petralak

Uda partean, giro epela nagusitzen denean, euliak ugaldtu egiten dira eta euli zitzadak petral samarrak izaten dira. Aurten ere guztion ahotan ibili da eulien arzoa.

Urte batzuetatik hona, gero eta euli gehiago dabil herrian eta protestak ugariak izan dira azken aldian. Askok "**Perdices Altube**" eta "**Criadero Vascongado de Codornices**" enpresek dituzten haztegiei bota izan die eulien ugaltze horren errua. Udalak arazoari irtenbidea aurkitu nahi izan dio eta abuztuko lehen egunetan Jaurilaritzako Osasun sailekoak arzoa ikertzen izan ziren Bergaran. Ikuskaketa egin zenean ez zuten eu-



Eguzkialdeko txaleta abuztuaren erdialdean, herrian jende gutxien zegoenean bota zuten.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnokak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

lien gehiegizko presentziarik somatu haztegitan. Hala ere, argi geratu da ikerketen arabera "Perdices Altube" eta "Criadero Vascongado de Codornices" enpresek ez dituztela beharrezko neurriak betetzen eta aurrerantzean haztegitan sortzen diren hondakinei irteera egokia eman beharko dizkiete.

Lazo urdina

Abuztuko lehen hamabostaldian plastikozko **lazo urdin** haundi bat jarri zen bariantean, **Lasagabaster** parean, Aldaiaren askatasuna aldarrikatzeko. Abuztuko azken egunetan, osterara, ezezagun batzuek su eman zioten. Udaletxean jarritako lazo urdinari ere hainbat eraso egin zizkioten, pinturaz betetako arraultzak jaurtiz.

Atxiloketa

Bestalde, esan dezagun, **Iñigo Elkoro** intsumiso bergararra atxilotu zutela ertzainek Hernanin abuztuko lehen egunetan, soldaduzkari uko

egiteagatik egin behar zioten epaiketara ez agertzearen. Iñigo Elkoro **Martuteneko espetxera** eramán zuten eta bertan gaua pasa ondoren, epailearen aurrera eramán zuten. Epailearen aurrean deklaratu ostean aske geratu zen.

Jaiak Osintxun eta Angiozarren

Abuztuan herrian izan direnek izan dute jai giroaz gozatzeko aukerarik, Euskal Herriko bazter askotan ospatzen baitira jaiak abuztuan. Herrian bertan ere izan dira, **Osintxuko Kofraixak** eta Angiozarko **Zabale-tamendiko San Bartolome** jaiak esate baterako. Kofraixetan aurten ere txekor hilketa, bertso saioa, pelota partiduak, mozorrotutakoen bizikleta ibilaldia (aurten Soralezera) eta rock kontzertua izan dira ekitaldirik azpimarragarrienak. Igandean ibili zen jenderik gehien, batez ere gaueko rock kontzertuan **EH Sukarra, Iskanbila** eta **Die Testers** taldeak ikusten.

Zabaletamendin, osterara, **Maixa eta Itziar** trikitilariak alaitutako erromeria eta bolo txapelketa izan ziren ekitaldirik garrantzitsuenak. Bolo txapelketako lehen sariaren 80.000 pztak **Aranzabal** elgetarrak eramán zituen.

Behia teiltuan

Gertaera kuriosoak ere izan dira abuztuko azken egunetan. San Lorentzoko Industrialdean dagoen **Tamu S.A.** enpresara, esate baterako, behi bat sartu zen abuztuaren 28an. Antza denez, uralitazko teilatu ganean ari zela, teilatua beherra etorri eta lantegi barrura jauzi zen behia bi metro t'erdiko altueratik. Jabeak, behia falta zitziola konturatu zenean, udaltzainei eta lantegiko ugazabari deitu zien eta kanpora atera zuten behia. Ez zuen zauririk jasan eta lantegiak, teiltuan izan ezik, ez zuen kalte garrantzitsurik izan.

Bestalde, **Antzuolako Trekutz** inguruan **Gaztelu Gain** elkartearen gertaera bitxia izan zen.

Ustekabe ederra hartu zuten bertako bazkideek frantsesez hitz egiten zuten ia bi metroko gizon beltz bat elkartera sartu zenean. Bertakoak zirikatzen eta modu txarrez tratatzen hasi zen eta bazkideek ertzainei deitu zieten. Handik gutxira ertzain bikote bat agertu zen eta kanpora irten zezan eskatu zioten baina honek aidean bidali zituen ertzainak. Kanpotarra dominatu ezinik, errefortzuak eskatu zituzten ertzainek eta berehala agertu zen beste dotazio bat. Hala ere, hauek ere ezin izan zuten menderatu, oso indartsua eta biolentoa omen zelako. Sprai bereziak eta beste tresna batzuk erabili eta gero, kanpora ateratzea lortu zuten eta atxilotuta eramán zuten *inkilino* berezia.

Gaztelu Gainen zuden bazkideek adierazi dutenez, frantziarra ez omen zegoen burutik oso sano eta antza denez **Zumarragako tren geltokian** parada egin ostean oinez heldu zen Gaztelu Gainera. Ikaratuta geratu ziren gertaerarekin.

INGELES FRANTZESA

MATRIKULA ZABALIK!!

95-96 IKASTURTEA

- HASIERA: **Urriak 2**
- MAILA GUZTIAK
- ADIN GUZTIAK
 - Haurrak
 - Gazteak
 - Helduak

INFORMAZIOA:

Begarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87



Osasuna

Lanera itzulera


- Jende askori lanera bueltatzea asko kostatzen zaio. Zein arazo izaten dira?

- Lanera bueltatzeko beldur hori norberaren proiektuari (profesionala, bizitza soziala, personala, politikoa...) berriz heltzeko suposatzen duen esfortzuekin lotuko nuke. Berrero errealitate horrekin topo egitea txoke bat da askorentzat eta txoke horrek konfliktu bat planteatzen du, oporretatik bueltatzean lehen utzitako guztia berriz martxan jarri beharra baitugu. Esfortzu hori nekagarria izan daiteke baina bestalde, oporren amaierak ere alde positiboak izan ditzake: jende gazteak ikasketak mailan batipat proiektu berriak planteatzen ditu, aurreko kursoaren amaierak etapa berri baten hasiera bait dakar. Jende gazteagoaren artean askotan aldaketa fisiologikoa ere ematen da udan zehar eta hazkuntza eta heldutasun horiek positibotzat jotzen ditut.

- Oporren ondoren etapa berri bat hasten dela esan daiteke?

- Hor beste arazo bat

eman daiteke, oporren aurretik geneuzkan arazoak adibidez berriz ere agertzea. Oporretan arazo horiek konponduko ziren ilusio faltsua izan dugu baina baliteke situazio horiek berregituratzea eta lehen deserosoak ziztaizkigun egoeretara bueltatzea. Prozesu guztia oporren aurretiko ego-



JOSE LUIS IRAZABAL
(Psikopedagogia Zentruko koordinatzailea)

erarekin lotuta dago, nola egin diogun aurre, etorkizuna ere berak markatuko baitugu eta proiektu horrekin jarraitu beharra izango dugu.

"Norbera bere posibilitatetara egokitzen bada lasaitasun gehiago izango du"



Oporretatik bueltan kostatzen zaigun arazoak berriz ere martxa hartzea.

- Oporrak ondo aprobetxatu izanak nolako garrantzia dauka?

- Oporrak ondo pasatzeak beti ere satisfazio bat suposatzen du. Azken batean konkista pertsonal bat modukoa izaten baita. Bidaia burutu, beste jende bat ezagutu, kirolak egin eta beste gauza asko. Alde hori positiboa da baina batzutan desilusia ere etor daiteke: oporrak amaitu egin dira eta beste ko martxara bueltatu beharra dago. Pixkat kezka bat dago hain atsegina ez den egoera batetara bueltatzeak esfortzu bat suposatzen duelako.

- Nola gaintu daiteke hori?

- Ez da jeneralizatu behar baina baliteke nahiko kasu larriak agertzea. Baina nere ustez, kasu gehienetan behintzat, bakoitzak aurretik bizi duen egoerarekin harremana dauka. Eta estres edota depresioaren agerpenak zerikusia izango du aldaketa horri eman nahi diogun erritmoarekin. Soluzioak? Bakoitzak norberaren errespetua izatea eta bakoitzaren indarrak eta posibilitateak neurtzea. Norbera bere posibilitatetara egokitzen bada lasaitasun gehiago izango du. Bestalde, arazorik balez, egokiena profesionalen batekin harremanetan jartzea izango litzateke.

MUJIKA
Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Udan? Lana

Denek ez dituzte oporrak izaten

Gaur egun lan eskaintza txikia izan arren, uda sasoian ateratzen dira lan egiteko zenbait aukera. J.A. Jauregi tabernari dabil, M. Belastegi kazetari, G. Iglesias lorazain eta E. Orgaz begirale lanetan ibili da.



Udan zein asmo duzu? Non izan zara oporretan?... horrelako galderak uda sasoian hitzetik hortzera erabiltzen ditugu. Uda, beroaren eta oporren sinonimo da gehienentzat, beste batzuentzat, ordea, lanarena.

Ordezkoetak egiteko zein udan ateratzen diren lanak egiteko zain lagun ugari izaten da. Era guzti-etako lanak izaten dira eta askok, egindako ikasketak edo ordurarteko lan esperientzia baztertuta, dagoenari heltzen dió.

Lorzain lau hilabetez

"Bergaran lorategi politak daude, gertatzen dena da ez garela oharitzen eta ez direla erres-

petatzen". Horixe dio abuztuaren lautik lorazain dabilen Gorka Iglesiasek. *"Niri gehien gustatzen zaidana Usondo parkearen irteeran dagoena da, barria eta loreak oso ondo uztartuta dituelako"* Eibarren lorzaintzari buruzko ikastaro bat egin zuen eta udalak egindako lan eskaintza bat tarteko 4 hilabeteko kontratua du.

"Aurretik obretako brigandan ibili nintzen, baina nabiago dut orain udan lana: loreak, landareak, belarraren usaia..."

asko gustatzen zaizkit". Lanean belarra eta setoak moztu, bazterrak garbitu eta etxeratzen denean ez ditu loreak ahazten: *"ika-*

la abuztu osoan zehar Zarautz hotela beteta izan denez, lan ugari izan du Jose Angelek.

"Oso ordutegi ona daukat eta lana gustatzen zait. Etxean ere baditut bonsaiak, kaktusak..."
Gorka Iglesias, lorazaina

ONENA
TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

ragarri gustatzen zaizkit; etxean bonsaiak, naranjo txinoak, kaktusak, e.a. ditut eta gustokoen ditudan loreak ere bai, larrosak".

Gehienek oporrak izaten dituzten garaian lan egin behar izan arren, lanera gustora joaten dela dio Gorkak: "uda lanerako oso garai ona da, ordutegi ona dut (7etatik ordubietara), eta gainera gustoko lana dut, niretzat hobby bat da". Azaroan kontratua bukatzen zaionean ez daki lanik izango duen, ez badu Malaga aldera joango da hamabost bat egun lasai-lasai pasatzera.

Udalekuetan meniskoa apurtu arte

Uztailaren 3a da, Edu Orgaz Arabako Garaiora iritsi da beste hiru begirale eta 35 hurrekin. 3. aldiz joan da udalekuetara. Lehenengo bi egunak primerakoak izan dira eta dagoeneko ahaztu ditu Arrasaten udalekua prestatzen egindako bilera guztiak. Itxuraz aurreko bi egunak bezalakoa da, baina... Inoiz jantzi gabe zituen zankoak hanketan hartu eta hala moduz, baina hasi da ibiltzen. Hala-ko batean, gehiago ezin eta erori egin da. Ondo ez, eta azkenean ospitale-
ra joan da. Meniskoa apurtuta du. Uztaila eta abuztua udalekuetan pasa beharrean belauna zain-



Umeak oso gustoko ditu eta primeran ibiltzen da Edu begirale.

tzen eman du. "Operatu egin behar izan ninduten eta ezin izan naiz udalekura bueltatu, baina horrek ez du esan nahi hurrengoan bueltatuko ez naizenik, datorren urtean ere joango naiz, baina aurretik zankoetan ibiltzen ikasiko dut". Edurentzat lana eta ondo pasatzea esan nahi du udalekuak: "dirua ez da gaizki etortzen, baina ondo pasatzen dudalako joaten

"Udalekuetan gustora ibili naiz baina suerte txarra izan dut meniskoa hautsi dut eta" Edu Orgaz, begiralea

naiz, oso esperientzia polita eta aberasgarria baita. 15 egunetan gau eta egun osoan haur eta begiraleekin zaude eta oso barreman estua lortzen da; barre, negar, denetarik egiten da. Bakarrik diruagatik ez nintzateke

etorriko". Udaleku ireki nahiz itxietan ibilia da "Nabiago dut itxietan ibiltzea. Askoz nekagarriagoa da, egunean bost ordu egiten dugulako, baina lortzen den giroa eta barremanak ez du alderik

"Gustatuko litzaidake Egunkarian jarraitzea baina zaila da kazetari eskaintza haundiegia dago eta" Monika Belastegi, kazetaria

Bergarar bat Zarautz hotelean

"Zarautz ez dakit zergatik den baina turistikoak, nire ustez ez da ezer, hondartza baino ez

LAN ESKAINTZA

12-15 urteko gaztetxoentzat astialdi iharduerak antolatzeko **PERTSONA BAT BEHAR DA.** Egun erdiz. Interesatuak izena eman **JARDUN** Elkartearen (Masterreka, 13) edo 76 08 19 telefono zenbakira deitu, irailaren 15a baino lehen.

du". Argi eta garbi du 5. udan Zarautz hoteleko tabernan tabernari lanetan dabilen Jose

Angel Jauregik. Uztailaren seitik iraila bukaera arte egongo da Zarautzen: "Egunean 6 orduz egiten dut lan, berez ez da oso gogorra, baina egunero etorri behar izaten dut, hau da, asteko 7 egunetan eta gogorra egiten da. Euskal jaiak bukatutakoan bi jai egun izango ditut eta iristeko irrikitzen nago". Hala ere, berak dioenez dena ez da txarra, "jende asko ezagutzen dut eta polita da. Batez ere madrildarrak eta zaragozarrak etortzen dira. Atzerritarrek ere etortzen dira, aurten italiar, holandar eta ingeles asko. Zenbait zerbait gertatuko ote zaien beldurrez etortzen dira, baina gero zoragarri pasatzen dute. Azken urteetan hutsik egin gabe etortzen diren bezero fijoak ere badaude".

Jose Angelek urtean ez du lan egiteko aukerarik izan eta udan horrexegatik ari da: "beste lanen bat aurkituz gero laga egingo nuke, baina besterik ez dudanez..."

Euskaldunon Egunkarian jairik jai

Monika Belastegi Egunkariak Bilbon duen delegazioan dabil kazetari. "Hasieran Egunkariak Euskal Herriko hain

"Beste lanen bat aurkituz gero udan ez nuke lanik egingo, baina besterik ezean..."

Jose Angel Jauregi, Zarautz hoteleko kamareroa

bat herritako jaietara buruz ateratzen duen gehigarrian aritu banintzen ere, orain iritzi eta ekonomia sailetan ere banabil".

Udan lanean jardun arren, Monikak ez du kezatzeko arrazoirik, "pena ematen dit hondartzara ez joateak, baina aurten bukatu dut kazetaritza

eta berehala egunkari batean lanean aritzeak, oso pozgarria izateaz gain, benetan kazetari lana zer den jakiteko aukera aparta eman dit. Horretaz gain, delegazioan dagoen jendea oso jatorra da eta lanera etortzeko animoa ematen du".

Udan albiste gutxiago izaten denez, kulebroiak ateratzen direla esan ohi da, baina Monikaren ustez aurtengoa uda mugitua izan da, "kulebroiak izan dira, baina albiste garrantzitsu asko ere bai: Lasa eta Zabalaren kasua, Zabalarena, Callejarena, Frantziako frogak nuklearrak... uda mugitua izan da. Eta Banderas eta Griffith". Irail bukaeran kontratua bukatzen zaionean ez ditu oporrak hartuko, "duela bi urtetik uztailean Egunkarian hasi bitartean, AEKn jardun dut klaseak ematen. Irailean Egunkariko bukatzen zaidanean seguraski berriz euskaltegian hasiko naiz". ■



Gorka Iglesias lorazain dabil Udalak kontratatuta. Oso gustoko du lana, berarentzat hobby bat da eta etxean lora ugari ditu.

Pepelu
Ilepaindegia
 Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
 BERGARA

INFERNUKUA
TABERNA
 Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

Zer iritzi daukazu Bilboko gotzaiaren inguruan sortutako polemikari buruz?




Cristina Santos
29 urte, langilea

Lojikoagoa ikusten dut hemengoa izatea, zentzu gehiago dauka. Azken batean ere beraientzat hobe da bertakoak izatea kanpotik etorri beharrean.



Marcos Pereira
26 urte, langilea

Nere ustez hemengoa izan beharko litzateke, batetik euskara mantentzeko eta bestetik hemen lan egiten badu hobe bertakoa izatea.



Antonio Domínguez
67 urte, jubilatua

Pixkat zentzugabekoa iruditzen zait. Artzai batek txistu egiten ez badaki nekez zainduko du behar bezala bere artaldea. Euskaraz jakitea beharrezkoa da.




Isabel Menor
26 urte, etxekoandrea

Ez dut gaia jarraitu ez zaidalako batere interesatzen.



Miren Leturia
26 urte, langabetua

Euskaraz dakien euskalduna izan beharko litzateke, Elorrioko baserritarrei ulertu ahal izateko.




José De Pedro
70 urte, jubilatua

Gotzai on bat jarri beharko lukete, berdin zait nongoa den. Baina horrez gain hemengoa bada, askoz hobe.

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

 **LAKET**
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA


TOSHARE
☎ 76 29 70

Simon Arrieta, 8
Gorka
OINETAKOEN KONPONKETA
Mota guztietako konponketak Bizkortasuna eta garantia osoa

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lenteria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



Txina eta emakumeak

Hamaika egunez bilduta izango dira Txinako Beijing-en Emakumeari Buruzko IV. Mundu Konferentziaren 12.000 partaidea. 185 estatu eta zenbait erakunderen ordezkariak Nazio Batuen Erakundeak (NBE) bultzatutako biltzar honetan parte hartuko dute.

Beste aldetik, ONG edo Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) Pekinetik 50 kilometrotara, Huairoun, foro alternatibo bat antolatu dute, bertan 36.000 pertsona izango delarik. GKEko kideek kritikatu dituzte bai Txinako Gobernu giza eskubideak errespetatzen ez dituztelako bai Nazio Batuen Erakunde Emakumeari Buruzko Konferentzia Txinan antolatzeagatik.

Hillary Clintonek famili plangintza inposatzen duten gobernuak kritikatu ditu bere hitzaldian baina izen konkretuak esan gabe. Txina hoietako bat da, Konstituzioak jaiotza kontrola agintzen duenez bikoteen ehuneko 84ak metodo antikonzeptibo bat edo beste erabiltzen du. Biztanlegoaren presioa dela ta, ume bat baino gehiago dituen familiek zergak eta isunak jaso behar izaten dute.

Hemen ere diplomazia sartzen da, inork (EEBBk ere ez) ez du nahi Txina haserretzea. Txina NBEko Seguritate Kontseiluan dago, bonba atomikoa du eta 1.222 milioi bizanle (emakumeak %48 dira). Han merkatu potentzial handi bat dago, nahiz eta Txina herri komunista izan.

Askorentzat konferentziak ez du ezertarako balio, baina batzutan hitzek indar gehiago dute leku konkretu batean esandakoak direlako. Urtetan Txinan entzun ez direnak, orain entzun dira. Aldaketaren hasiera izan daiteke.

German Larrañaga



Eliza kontuak

Pekinetik datozen berrien arabera badirudi Vaticano II.a Kontzilioaren izpiritu zabala berreskuratu duela Elizak. Antisorgailuen onarpenak eztabaida zorrotza sortuko du Lefevre eta antzeko jarraitzaileen artean, baina ongi etorria eman beharko diogu pildoraren "urbi et orbi"ko baimen santuari. Eliza ofizialaren urratsak berunezkoak izaten dira. Denan den, ondo datorkio instituzioari errealitatezko bainu goxoa.

Antisorgailuak onartzeak lurrikara dexente sortaraziko du katoliko, apostoliko eta romanoen artean, beraien erreinua ez delako mundu honetakoa. Aldiz, benetako kristauei itxurazko jarrerak eta fariseukeria alde batera uzteko aukera iritsi zaie.

Kontu hau kalean izanik, Arzalluzek esandakoa zentzuduna iruditzen zait, nahiz eta erabilitako moduak oso kritikagarriak izan. Elizak, "realpolitik" egiteko prest badago antisorgailuekin, berdin jardun dezala gotzaien izendapenetan.

Hipokresia alde batera utzi dezatela. Eliza ofizialaren "politikariak" eliztarrak eskatzen dituzten artzaiak jarri ditzatela. Elizari jokabide demokratikoak eskatzea "contradictio in terminis" bat da baina, gutxienez, itxurak gorde ditzatela. Baita Euskadin ere.

Iñigo URRUTIA

CAMACHO

**Drogeria
Usaindegia**

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

**Txema Muñoz
Jose Martínez Román**



ARGAZKI ERAKUSKETA

**NAHIKARI TABERNA
Bergara**

BEHEKO TABERNA

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74-

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA

**PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92



Axen Garitano Gaittaoko txakurtegia Julio Eizagirre laguntzailearekin batera.


■ **Txakurren oporrak**

Meditarreneo aldeko hotelen antzera, **Elurra txakurtegia** toperaino egon da abuztuan. Kanpura alde egin duen jende askok beren txakurrak Elurra txakurtegia utzi ditu eta, **Axen Garitano** txakurtegiako jabeak emandako datuen arabera, 37 txakur izatera heldu da (iaz baino erantzun hobea jaso da) eta zenbait jenderi ezetza eman behar izan dio. Izandako erantzuna ikusita, datorren urteari begira Axen txakurtegia haunditzeko

aukera aztertzen ari da. Antza denez, txakurrek ere opor onak igaro dituzte "pentsio osoko" hotel honetan...

■ **Afrika beltzean**

Begoña Egaña, Pantxika Arin eta Patxi Azkarate antzuolarrak Tanzanian izan dira abuztuan hiru astez. Patxi Azkaratek bertan lanean ari den misionero bat ezagutzen zuen eta haren bitartez Tanzaniako mangati, guajira edota boskimano tribuen bizitza eza-gutu ahal izan dute gertu gertutik. Argazkian Patxi Azkarate eta Begoña Egaña eskolen garapena helburu duen ONG talde bateko ordezkariarekin eta **boskimanoen** talde batekin ikus ditzakezue. Tribuek primeran tratatu zituzten antzuolarrak eta hauek liluraturik bueltatu dira Afrikan izandako esperientziarekin.



• **PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA.**
 • **LOGOPEDIA, LOGOFONIATRIA:**
AHOTS, HIZKETA ETA LENGOAIA
ZAILTASUNEN BIRGAITZEA ETA LARINGEA
KENDUTAKOEN BIRGAITZEA.

CEDICO, Koop. Elkartea
 Herri Lagunak, 1 behe (Seminarioko patiotik sarrera) ☎ 76 14 80
 Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal



ESKUALDEKO
ZENTRUA
BERGARA

MUGICA
 GOXOTEGIA



- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Artekale, 3
 ☎ 76 10 34



■ **Antxintxika euskaraz**

14 urteko 15 lagun ari dira Udalak eta JARDUNEK martxan jarritako "Antxintxika" programan. Programaren helburua batxilergo ikasketak hastear dauden ikasle hauek euskara lantzea litzateke eta horretarako, goiz eta arratsalde, euskara

eta matematikako terminolojia lantzen dute Ane Iturralde, Alazne Pardina, Jone Larrañaga, Ramon Agirrezabal eta Felipe Iñarra begiraleen laguntzaz. Ikasteaz gain, hainbat irteera egingo dituzte: astebukaera honetan Zarautzera eta hurrengoan Albatzisketara doaz. Ondo pasa!!

Zertan dihardute ba?




Julen Masach 28 urteko bergararra Real Sociadadeko prestatzaile fisikoa da joan den uztailetik. Masach orain 28 urte Bergaran jaio zen (aita bergararra du) baina txikitatik Deban bizi izan da. Julen Masachek Madrileko INEFen ikasketak burutu zituen eta Futboleko Maisu titulua lortu zuen. Azken 5 urteetan Deportivo Alavéseko prestatzaile fisikoa izan da eta horrez gain Gasteizeko IVEFen klaseak eman ditu. Orain, urtebeteko eszedentzia eskatu du Gasteizen Realera etorri ahal izateko. Realean batipat lesionatutako jokalariaik errekuperatzeaz arduratuko da. Gaur egun Julen Masach ezkondata dago eta Elgoibarren bizi da.

■ **Hello!!**

Aldez aurretik askerrik asko

BERRIGARARA postalak bidali dituzuen gutztoi, lanera itzulera atseginagoa egiteagatik.

Dexente jaso ditugu eta batzuk oso originalak eta



dibertigarriak gainera. Hainbat bazterretatik bidalitakoak, Estatu Batuetatik, Italiatik,

Kanarietatik, Andaluziatik, Galiziatik, Bretañatik eta baita Txinatik ere... Argazkian duzuen hau Gironako Costa Bravatik bidali digute. Postalak Kataluniako kostaldeko giroa isladatzen omen du, beraz, argi dago aspertzeko astirik ez dutela izan oporrak inguru horretan igaro dituzten bergarar hauek.

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29

☎ 76 22 90 - 76 26 75

Usoa Pub



☎ 76 38 57

Irala, 1



Jose Manuel Serrano

Txikitan saskibaloian azaltzen zuen trebeziagatik lagunek "Epi" ezizena jarri zioten. Tabernan ere ez da batere makala eta FP1 ikasketak burutu zituen 26 urteko bergarar honek jadanik 6 urte bete ditu Infernukuan kamarero lanetan.

- Zer egin duzu oporretan?
- Lan egin.
- Inguruko jaietara joan zara?
- Bai, Bilbokoak onenak.
- Kamararro on bat izateko zer?
- Pazientzia asko behar da.
- Zeri buruz hitzegiten du jendeak barran?
- Gazteak futbolaz eta zaharrak pelotaz.
- Zer edaten da gehien?
- Ardoa eta garagardoa.
- Jan, pintxoak ala bokadiloak?
- Pintxoak.
- Zure janaririk gustokoena?
- "Arroz a la cubana" eta oilasko petxugak.
- Kafe hutsa ala ebakia?
- Ebakia.
- Purorik erretzen duzu?
- Ez dut erretzen.
- Zerk jartzen zaitu sutan?



"Barran gazteek futbolaz egiten dute berba eta zaharrek pelotaz. Kea aurpegira botatzen didatenean sutan jartzen naiz. Ez nintzateke sekula Torremolinosera joango eta Australiara bidaiatzea amesten dut. Liga Deporrek irabaziko du"

- Kea aurpegira botatzeak.
- Udako pertsonaiarik aspergarriena?
- Chirac.
- Musika talde bat?
- Sonic Youth.
- Gehien ikusi duzun filma?
- "Marcado por el odio" eta "El silencio de los corderos", lau bat aldiz.
- Telebista programa bat?
- Expediente X.
- Irakurritako azken liburua?
- Stephen Kingen "La tienda" irakurtzen ari naiz.
- Taberna ixterakoan alde egiteko asmorik?
- Bai.
- Nora ez zinateke joango sekula?
- Torremolinosera.
- Praka motzak ala luzeak?
- Biak.
- Kostaldea ala barrukaldea?
- Kostaldea.
- Plaia bat?
- Lekeitiokoa.
- Mendi bat?
- Hiru Erregeen Mahaia.
- Afiziorik?
- Frontenisa.
- Nork irabaziko du liga?
- Deporrek.
- Amets bat?
- Australiara joatea.
- Zer izatea gustatuko litzaizuke?
- Rally pilotoa.

IKUSI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irizar, 2 ☎ 76 53 09

POL-POL
Taberna

☎ 76 07 78

KONDE

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

PANADEROKUA

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

IZAR
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Gas-teizen. Ikasleentzat egokia. ☎ 76 14 60.

Pisua salgai Antzuolan. ☎ 76 60 39.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Baserría salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Pisua salgai Saturraranen. ☎ 76 10 94.

Garajea salgai prezio one-an. ☎ 76 03 70.

Pisua salgai Zarautzen. ☎ 78 19 50.

Etxea salgai Aranerrekan. ☎ 76 56 75.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 25 20.

Garajea salgai Burdiñaten. 3 milioi. ☎ 76 31 79.

Pisua alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 76 35 30.

DENETARIK

Roller aloha karabana salgai. ☎ 76 58 59.

Kawasaki ZXR 750 motor bat salgai. ☎ 76 42 47.

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Mobilette Cady motorra salgai. ☎ 76 13 11 (gauzez).

Vespa bat erosiko nuke. ☎ 76 06 06.

Karabana bat salgai (berri-berria). ☎ 76 10 09.

Squier Stratocaster kitarra salgai. ☎ 76 15 07.

Honda CBR 600 F motorra salgai. ☎ 76 34 10.

Karrerazko bizikleta salgai. ☎ 76 18 78.

Bilbon pisua osatzeko 3 lagun behar dira. ☎ 76 16 51/75 17 07.

Telefono mobila salgai. ☎ 908 77 16 33 (Iñaki).

"Benimar" karabana oso egoera onean saltzen dut. ☎ 76 17 50 (goizez, astear-tetik larunbatera).

Neska bat behar da Donostian pisua osatzeko. ☎ 76 42 76.

Daewoo musika kataia salgai. CD eta 2 pletina. ☎ 76 23 82 (Mikel).

Ikasle batek pisua konpartituko luke Deustun edo Ibarrekolandan (Bilbon). ☎ 76 32 85 (Ivan).

LANA

Tabernari bezala lan egingo nuke. ☎ 76 41 94 (Amaia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Kamarera lan egingo nuke. ☎ 76 16 83 (Eduarne).

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Matematika eta zientzie-tako klaseak. ☎ 76 06 50.

Hezitzaile tekniko batek zaharrak edo haur atzera-tuak zainduko lituzke. ☎ 76 38 99.

Etzeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Neska euskaldun batek etzeko lanak egin eta haur edo zaharrak zainduko lituzke. ☎ 76 16 22 (Nere Amaia).

Esperientziadun neska batek ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 28 16.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta BBBko klaseak. ☎ 76 42 08 (Nere).

Ingeles Filologia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Pianoko klaseak ematen ditut. ☎ 76 50 59 (Mikel).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3 Ibargarai, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

MUJIKA

Jantzydenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



"Trikiti ikasleekin kalera irtetzea da gure asmoa egin dituzten aurrerapenak ikusi dezaten"

"Rock eta berbena taldeetan soinua sartzea ondo ikusten dut soinujoleei irteera berri bat ematen baitzaie"

JOSU ZEZIAGA, SOINUJOLEA

"Trikitixa jotzen ikasteko norberak gogoia izatea da inportanteena"

Josu Zeziaga soinujole bergarra (23 urte), 10 urte zituela hasi zen Sakabi azpeitiarrarekin trikitixa ikasten. Harrezkero, kalez kale ikusi ahal izan dugu, herrietako jaietan. Gaur egun Koska berbena taldearekin ari da eta JARDUNEN trikiti eskolan erakusten du.

- Noiz hasi zineten trikiti eskolarekin?

- Orain dela bi urte ekin genion eta hastear dagoen ikasturtea hirugarrena izango da. Gustora gaude egindako lanarekin. 12, 13 edo 14 urteko neska-mutikoak dira gehien etortzen direnak, baina badira 30 urtetik gorakoak ere. 20 eta 30 urte bitarteko gazteak ez dira hainbeste hurbiltzen, baina ateak irekita ditugu eta animatzeko esangonieke. Orain hasi eta ekainera arte irauten du ikasturteak eta asteazken eta larunbatetan izaten dira.

- Hastear dagoen kurtso berrirako nobedaderik bai?

- Beno, asmoa kalera gehiago irtetzea da. Hasi-eran zaila da, baina behin maila hartu ezker, kale-



Trikitiarekin kalez kale ibiltzeaz gain, Koska taldean ere badabil.

ra irtetzea da gure nahia, ikasleek ere nahi izaten dute eta komenigarria da, kalean ikusten baitira aurrerapenak.

- Eta soinujole onak izateko zer behar da?

- Norberak gogoia izatea da inportanteena. Solfeorik eta entzumen berezirik ez da behar, lagungarriak diren arren. Ilusioa eduki ezker, ez da ikasteko zaila gainera, praktikatuaz konturatu barik ikasten da.

- Trikitixa kalez-kale jotzeaz gain, berbe-

na taldeetan ere aritu izan zara...

- Bai, hasieran Antzuolako jendearekin ibili nintzen, pandero jolearekin batera zein berbenatan. Orain urte batzu Korkoil taldean ibili nintzen baina bertan behera laga genuen hura. Orain, berriz Elgoibarko Koska taldean jotzen dut. Iaz hasi nintzen eta aurtengo udan dextente irten gara.

- Eta zer deritzozu rock edota berbena taldeetan soinua sartzeko joera edo moda horri buruz?

- Ondo ikusten dut soinujoleari irteera berri bat eman baitzaio.

- Eta antolatzen diren trikiti piezen lehiaketek buruz zer?

- Ez ditut gaizki ikusten, oso lehiaketa zalea ez izan arren. Hala ere, arau edo muga batzuk argi eta garbi zehaztu beharko liriateke, epaileek zein trikitilariak jakin dezaten zer baloratzen den. Urteak dira txapelketa nagusia ez dela antolatzen arazo horregatik. Baina ondo dator, trikitixak ospea hartu duelako, gazte jende asko mugitzen da eta trikitilari berriak irretzen dira.

"Trikiti piezen lehiaketak ez ditut gaizki ikusten, oso zalea ez izan arren. Hala ere arau edo muga batzuk argi eta garbi zehaztu beharko liriateke"

FUTBITO TXAPELKETA SAN MARTIN OSTEAN HASIKO DA

Datorren asteazkenera arte (hilak 13) zabalik dago Labegaraietako Futbito Txapelketan parte hartzeko izena emateko epea. Dagoeneko 18 talde apuntatu dira. Gogoratu jokalarien zerrenda, argazki bana eta 5.000 pzta. talde bakoitzeko entregatu beharko direla Kiroledegian.

SAN MARTIN TXIRRINDULARITZA LASTERKETA IGANDEAN

Igande honetan goizeko 9etatik aurrera XXX. San Martin txirrindularitza saria jokatu da. Bigarren mailako afizionatuek hartuko dute parte eta helmuga eguerdi parterako iragarri da Ibargarai kalean.

AITOR ZABALETA ESPAINIAKO TXAPELDUN

Aitor Zabaleta auto gidari bergararra Espainiako mendi igoeretako txapelketa lortu zuen uztaillean Chantadako (Galizia) igoera irabazi ondoren. Garaipen horrekin San Juango gidariak azken urteetan horrenbeste kostatu zaion Espainiako txapelketa eskuratzea lortu du. Horrezaz gain Zabaletak aurten korritu dituen froga guztiak irabazi ditu. Txapeldunak datorren irailaren 22an Asturiaseko Fito mendi igoeran izango da txapela defendituz.

Martin Egaña

Citroen AX kopako lidergoan

Martin Egaña autogidariak 3 urte daramatza Citroen AX kopan korritzen eta orain arte postu onak lortu baditu ere, aurtengo denboraldian lidergoan dugu txapelketa amaitzeko 3 froga bakarrik falta direnean.

- Zer moduz ibili zara orain arte jokatu-tako lasterketetan?

- Bost karrera korritu eta 3 irabazi ditut. Orain arte gauzak ezin hobeto joan zaizkit. Hiru lasterketa gelditzen zaizkit eta erraza ez izan arren, uste dut aterako dudala txapelketa. Bigarren edo 3. geratu ezker txapela poltsikoan dut.

- AX kopako txapeldun geratu ezker, zein izango litzateke hurrengo pausua?

- Nire asmoa Citroen ZX mailara igotzea litzateke, baina horretarako, nahiz eta aurrean ibili, etxe babesleren bat izatea beharrezkoa da. Talde galiziar batekin harremanak izan ditut eta laister Jaramara joango naiz kotxea frogatzera. Hala ere, Turismo mailara heletzea gustatuko litzaidake, oso zaila den arren.

- Euskadi mailan kotxe gidarien elkarte bat sortu berri duzue...

- Euskadi mailan gabiltzan auto gidari guztiok elkartu eta Euskadi Racing osatu dugu eta horrek funtzionamendu aldetik gauzak hobetu dizkigu. Guztira 12 gidari gaude eta pertsona batek guztien *papeleo* eta ho-

rrelakoak eramaten dizkigu gauzak erraztuz.

- Bergaran auto zein motorzale eta jarraitzaile ugari izan da beti. Gaur egun gazteak animatzen al dira?

- Oraindik ez da jende berririk sartu motor munduan, baina entzuten dugu bat edo bat sartzekotan dabilela. Duela 5 urte Irizar eta biok zirkuitotan hasi ginenean Euskadi mailan beste inor ez zebilen eta orain 12 gabil-tza.

- Zer behar da kotxe lasterketan hasteko?


- Lehenik eta behin kotxea edukitzea eta gero gurekin harremanetan jartzea litzateke egokiena.

- Lasterketa batean zer da zailena?

- Gauza bat azkar ibiltzea da, hori zaila da; baina irteeretan ere kontu askorekin ibili behar da, kotxe asko izaten dira irteeran eta kolpekin kontutuz ibili behar da.

- Istripurik izan al duzu?


- Alde horretatik zorte ona izan dut, ez baitut istripu larririk izan.



"Datorren urtean Citroen ZX kopa korritzea da nire asmoa".

"Hiru lasterketa geratzen zaizkit oraindik baina uste dut txapela lortuko dudala"

Bergarako futbol talde nagusia martxan



Gazteen ilusioa

Aurtengo denboraldirako erabaki garrantzitsua hartu dugu, preferente mailako taldea guztiz berriztu baitugu eta gainera, herriko jokalariekin. Taldean inork ez du kobratuko eta entrenatzailea bere postuan mantentzea erabaki dugu, gure ustez asko erakutsi dezakeelako. Emaitzei dagokienez, aurre-denboraldian lortutako emaitzak uste baino hobegoak izan dira. Horrek esan nahi du taldeko jokariak gogo eta ilusio handiz dabiltzala eta hasiko den denboraldi berria ilusio eta itxaropen askorekin ikusten dugu. Herriko zaletuei esango nieke Agorrosinera joateko eta taldea animatzeko aurrean izan dadin.

IÑIGO ZAITEGI
BKEKO PRESIDENTEA

BKEko preferente

mailako taldeak igandean jokatu du 1995-96 denboraldiko lehen partidua Agorrosinen arratsaldeko 5etatik aurrera Tolosaren aurka. Azken denboraldian hainbat jokalarik taldea laga ondoren, bergarar ugariz osatutako taldea aurkeztu du BKEk. Javi Pérezek, berriz, entrenatzaile postuan jarraitzen du eta itxoropentsu ikusten du igandean hasiko den denboraldia. *"Taldea gaztea dugu eta orain arte jokaturako partiduetan gogo eta joku ona erakutsi dute. Halere Tolosa oso talde indartsua da, izan ere iaz 3. mailan ibili zen eta arerio zaila*

tokatu zaigu hasteko. Baina gauzak ondo iritezten badira irabazteko esperantza daukat" dio Pérezek.

Taldearen ezaugarriari, dagokienez, Pérezek aurrelariak eta erdikaldean jokari indartsuak falta direla adierazi digu. Joan zen denboralditik 6 jokalarik jarraitzen dute eta 7 jokari kanpokoak dira: 3 Elgoibarkoak, beste 3 Eibarkoak eta Oñatiar bat. Azken orduan BKEk duela bi urte Bergaran ibilitako Gorka Zelaia

Igandean 17.00etan Tolosaren aurka debutatuko du Agorrosinen

oñatiarra eta iaz Markina taldean ibili den Zigor Errasti eibartarra fitxatu ditu eta biak ere aurrelariak dira.


"Denboraldi amaieran ez dakit ze postutan amaituko dugun, baina lana egiten bada eta ilusioa baldin badago emaitza onak lortuko ditugu" esan digu Pérezek. Taldeak joan zen urteko sistema berbera erabiliko du, 4-4-2 sistema alegia, eta defentsak lerroan jokatu du. BKEk orokorrean 1995-96 denboraldirako 8 futbol talde aterako ditu eta 12 miloiko aurrekontua du, elkarteko lau sailak, hau da, saskibaloia, pelota eta eskubaloia kontutan hartuta.



Talde gaztea osatu du aurten BKEko futbol talde nagusiak.



Javi Pérez
35 urte. Eibar.
Entrenatzailea.
Hirugarren urtea.



Jabier Iturbe
39 urte. Bergara.
2. entrenatzailea.
Lehen urtea.



Luis Herzog
42 urte. Bergara.
Delegatua.
Bigarren urtea.



Roberto Alonso
22 urte. Elgoibar.
Atezaina.
C.D. Elgoibartik fitxatua.



Markel Egaña
18 urte. Bergara.
Atezaina.
B.K.E.ko jubeniletatik.



F.J. Rodríguez "Piti"
24 urte. Bergara.
Atzelaria.
B.K.E. 6. urtea.



Asier Artzamendi
21 urte. Elgoibar.
Atzelaria.
C.D. Elgoibar. 2. urtea.



Mikel Osoro
20 urte. Eibar.
Atzelaria.
S.A.D. Eibar. 3. urtea.



X. Lazkano "Xagu"
21 urte. Bergara.
Atzelaria.
B.K.E. 2. urtea.



Aitor Elkoro
21 urte. Bergara.
Atzelaria.
B.K.E. Lehen urtea.



Jon Ander Gallastegi
19 urte. Bergara.
Atzelaria.
B.K.E. Lehen urtea.



Aritz Juarros
19 urte. Bergara.
Atzelaria.
B.K.E. Lehen urtea.




Igor Azkarate
22 urte. Bergara.
Atzelaria.
B.K.E. Bosgarren urtea.



Luis Blanco
20 urte. Eibar.
Atzelaria.
Eskoriatzatik fitxatua.



Josexo Lizarralde
19 urte. Bergara.
Erdilaria.
B.K.E. Bigarren urtea.



Oskar Maiztegi
20 urte. Bergara.
Erdilaria.
B.K.E. Lehen urtea.



Jokin Mendiaratz
18 urte. Bergara.
Erdilaria.
B.K.E.ko jubeniletatik.




Aritz Ibarluzea
21 urte. Elgoibar.
Erdilaria.
C.D. Elgoibarretik fitxatua.



Iñaki Arrieta
21 urte. Bergara.
Erdilaria.
B.K.E. Bigarren urtea.



M. Larrañaga "Maki"
24 urte. Antzuola.
Erdilaria.
B.K.E. Hirugarren urtea.



Igor Errasti
20 urte. Eibar.
Aurrelaria.
Ermuatik fitxatua.



Jon Gallastegi
18 urte. Bergara.
Aurrelaria.
B.K.E.ko jubeniletatik.



David Maestre
21 urte. Bergara.
Aurrelaria.
B.K.E. Lehen urtea.



Bartzelonakin galdu

Bergarak eta Santanderreko Tolucak, 1964ko maietzian, Españaiko kanpeonatuoko eliminatoria jokatu zeben. Hiru partidu bihar izan zittuan Bergarak Toluca kanporatzeko. Hirugarren partidua Garellano futbol-zelaian jokatu zan, Indautxun, eta hemendik Bergarak urten zeban irabazle. Honen ostian, Bartzelona izan zeban aurkari eta honek eliminatu ein zeban geure ekipua.

Ezkerretik eskumara:

Zutik: Felix Iñarra, Enrike Olabide, Akixu, Luis Abajo, Jesus Irizar "Pardina", Agustin Aranzabal "Gaztelu", Jabier Otaño.

Makurtuta: Juanito Juaristi, Jabier Garate, Pablo Gallastegi, Juan Antonio Igarza "Ardatza", Julio San Vicente.

Felipe Iñarra

Erretratua: Agustin Aranzabal "Gaztelu"

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

Atsedeen zentrua
LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN



ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

OSO ERRAZA DA



95-96rako EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak: EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA

ERRITMOAK

Egunero 2 ordu
Egunero 3 ordu
Egunero 5 ordu

IRAUPENA

Iraila-Ekaina
Iraila-Ekaina
Iraila-Otsaila

PREZIOAK

26.000 pzta.
37.500 pzta.
33.800 pzta.

Bekatzte sistema eta diru laguntzak ditugu. Galde ezazu.

MATRIKULALDIA

Irailaren 4tik 15era arte

BULEGO ORDUTEGIA


Goizez: 08.30-12.30

Arrastadez: 14.30-19.00

16 URTEZ GORAKOENTZAT

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 BERGARA Telefonoa eta Faxe: 76 44 53



UDAL

EUSKALTEGIAK

Truke Operazioa

Amuebladora Mondragonesa

EKARRI DIZUGU
KOLTXOI ZAHARRA...



... ETA 10.000 PEZETA
ARTE DESKONTATUKO

Dizkizugu Zure Atsedean
Sistema Berrian

FLEX



Eta loa kenduko
ez dizuten prezioak
zatoz galdetu!



grupo



Amuebladora
Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 MONDRAGON
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 MONDRAGON